

5 AURREZKIA ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea eta oparia

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, 5.000 Travel Club puntuko 15 sorta zozkatuko ditu, sustapen baten barruan.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokia arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarriarik ordaindu behar.

3.- Sustapenean parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxaren epe luzerako aurrezki-aseguru indibidual bat (5 AURREZKIA) kontratatzen duten pertsona fisiko guztiek hartuko dute parte zozketan. Saria eskuratzekotan, Travel Clubi atxikitako LABORAL Kutxaren kreditu-txartela izan beharko du bezeroak. NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango. Zozketak prozedura informatiko bidez egingo dira. Parte-hartzaileek, oparia jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontratatutako produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa.

Ez baditu baldintza horiek betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

4.- Zozketa

5.000 Travel puntuko 15 sorten zozketa 2018ko urriaren 15ean egingo da, ausazko sistema informatiko bidez eta zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, ordezkoko 5 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

5 egun balioduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago Entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkokoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoarentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Opariaren azalpena eta entregatzeko modua

5.000 Travel puntuko 15 sorta. Oparia ezin izango da beste sari batekin edo dirutako balioarekin trukatu.

Parte hartzeko epea: 2018ko irailaren 3tik 28ra bitartean.

6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko legedian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, eta sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.